



# Herriek Bere Eskola

Herriek Bere Estola – EHBE – Nazioarteko informazio buletina  
21. alea | 2007ko Urria A | [nazioartea@euskaleskola.org](mailto:nazioartea@euskaleskola.org)  
<http://www.euskaleskola.org/nazioartea/herriekbereeskola.htm>  
ALE BEREZIA – EDUCACION PARA LA CIUDADANIA

## ZER DA *Educación Para la Ciudadanía*?

“Educación Para La Ciudadanía y los Derechos Humanos” izenarekin Espainiar estatuak ikasgai berri bat bultzatu du LOEn. Ikasgaiaren helburuak Giza Eskubideak eta Espainiar Konstituzioaren baloreak barneratzea da. Horretarako Espainiar Konstituzioan eta Nazioarteko Itunetan agertzen diren printzipioak ikasgelatara eramango dira.

Ikasgaiak lehen eta bigarren hezkuntza bustitzen ditu. Lehen hezkuntzan edukiak hiru bloketan bereizten dituzte:

- Pertsona guztien duintasunaren onarpenean oinarritzen den harreman eredu bat proposatzea, bestearenganako errespetuan nahiz eta iritzi eta sinismen ezberdinak eduki eta dibertsitatea eta pertsonen eskubideetan oinarritua. Eguneroko egoeratan oinarritua gizon eta emakumeen berdintasunean aztertzea, bai familian bai eta lanean. Norberak bere ardurak hartzeko gaitasuna edukitzea.
- Demokraziaren oinarri ei diren balore gizatiarrak lantzea: errespetua, tolerantzia, elkartasuna, justizia, berdintasuna, laguntasuna, kooperazioa eta bakea. Bakoitzak bere taldeetan (familia, sinismenak, lagunartean...) dituen eskubide eta betebeharrak aztertzea, dibertsitatea landuz. Diskriminazioa ematen direneko unean identifikatu eta horien aurka jartzea.
- Konstituzio espainiarrak finkatzen dituen elkarbizitzarako arau eta printzipioak ikasi eta behar-beharrezkoak direla onartzea. Zerbitzu publikoen eta jabetza publikoaren ezagutza. Administrazioak hiritarrekiko duen lana ezagutu eta hainbat jarduera ezagutzea: proteccion civil (hau da, polizia), segurtasuna, eta bakearen aldeko defentsa (hau da, militarren beharra).

Bigarren hezkuntzan 5 bloke proposatzen dira:

- Eztabaidatzen jakitea eta errespetuz jokatzeko dibertsitate pertsonal eta kulturalarekin.
- Harremanen inguruko blokea, pertsonen duintasunaren errespetua, norbanakoaren eskubideak eta elkartasunaren sustatzea. Eskolan parte-hartzea eta ordezkariak jorratzen da.
- Nazioarteko testuetan jasotako printzipioak ezagutu, giza eskubideen bortxaketa kasuan identifikatu eta nazioarteko epaitegien eta epaitegi arrunten arteko ezberdintasunak jakitea.
- Estatu Demokratikoen funtzionamendua XXI. Mendean, batez ere espainiar eredu politikoa aztertuz. Zerbitzu publiko ezberdinen papera aztertzen da.
- Gaur egungo jendartearen hainbat gai jorratzea: globalizazioa, interdependentzia, munduan dauden gatazka ezberdinak eta nazioarteko erakundearen papera euren konponbidean.

Ikasgai LOEn finkatuaren arabera ematen ari da jada Nafarroan. Espainiar estatuan gainera Asturias, Kantabria, Andaluzia, Katalunia eta Aragoi ematen da. Lehen blokea lehen hezkuntzako hirugarren zikloko ikasturte batean eman behar da, hau da, 5. edo 6. mailan. Bigarrena DBHko lehenengo hiru ikasturteetako batean. Gainera DBHko 4. mailan Hezkuntza etiko-zibikoa ikasgai ematea finkatzen da. Ikasgai honetan 6 bloke daude: eduki komunak, identitatea eta alteritatea (hezkuntza afektibo emozionala), teoria etikoak eta giza eskubideak, etika eta politika (demokrazia, konstituzioaren baloreak), munduan dauden arazo sozialak eta gizon eta emakumeen arteko berdintasuna.

Edukiak ez ditu espainiar estatuak finkatu bere kasa. Berez Europar Komisioaren gomendio bat da, kide diren estatuetan demokrazian eta baloreetan hezteak. Modu honetan Europar Komisioaren helburuetako bat bete ahal da: bere onarpen zabala lortzea. Helburuetako bat onarpen orokorra duten gaiak (eskubideak, errespetua, tolerantzia -dituen konnotazioekin-, berdintasuna...) helburu politikoak dituzten beste gai batzuekin nahastea da. Honela ikasgai berdinean onargarriak diren eskubideak Europar Batasunak edo Nazioarteko Erakundeek duten paperarekin nahasten dira, ikasleengan munduaren ikuspegi zehatz bat txertatuz. Nabarmentzekoa da, ildo honetan, ikasgai honek etxea teilatutik eraikitzen duela. Oinarri diren Nazioarteko Itunak lehen zikloan ikasi ordez bigarrenean ikasten ditu eta Espainiar Konstituzioa lehenengoan, berez logikoagoa denean lehenengo nazioarteko itunak ikastea eta ondoren estatu bakoitzeko berezitasunak.

Luze joko luke azterketa honetan Bilderberg Kluba izeneko nazioarteko erakundeak jokatzen duen papera. Baina talde honen helburuetako bat Nazioarteko Gobernantzarrena da, hau da, nazioarteko erakundeek mundu osoan zehar erabakiak hartzea. Horretarako politika ezberdinak jartzen dituzten mahai gainean, horietako bat hau delarik. Hala ere hau ez da ikasgai honetan momentuko gai nagusia.

Behin ikasgaiaren oinarriak ezagututa beste eztabaida bat ere egin daiteke: gauza bat da ikasgaiaren finkatzen diren helburuak eta beste bat hori ikasgai nola jasotzen den. Eta horren erantzuna, beti bezala, testuliburuak dute. Ikasgai prestatzeko duten testu-liburuetan denetarik aurkitu daiteke: konstituzioa eta erlijioa batzen dituztenetik Iraken egondako milioika hildakoen errua PP bozkatu dutenena dela esaten dutenak arte. Gaur egungo jendarte eredu defendatzen dutenetatik kapitalismoa kritikatzeko dutenak arte. Baita unitate didaktiko ezberdinak, adibidez Arartekoak eginikoa umeen eskubideen inguruan.

Ikasgai nork eman beharko duenaren inguruan ere zalantzak daude. Ikastetxe pribatu eta kontzertatuetan zuzendariak berak erabakiko du zein irakasle emango duen. Ikastetxe publikoetan Haur Hezkuntzaren kasuan irakasleak berak eman beharko du, bat baino gehiago baldin balego Geografia eta Historia edo Filosofia departamentuetako kide direnak. Bigarren hezkuntzan Filosofia departamentuko kideak izango lirateke ikasgaiaren arduradunak. Sektore honetatik kritikak egin dira Filosofian historikoak diren gaiak (etika barne) murrizten direlako ikuspuntu politikoagoa duen ikasgai baten alde.

## ETA EUSKALDUNOK ZER?

Ikasgai Espainiak inposatzen duenez Hego Euskal Herrian derrigorrez eman beharrekoa da. Nafarroako Foru Komunitatean jada hasi da aurten eta EAEn dirudienez hurrengo ikasturtean hasiko litzateke.

Ikasgaiari bi kritika mota egin ahal zaizkio: lehena estatuek hezkuntzan ikasi behar diren baloreak finkatzeko ze eskubide duen eta bigarrena euskaldun gisa nola zapaltzen gaituen. Lehenengoari dagokionez argi dago estatu guztiek nolabait finkatzen dituztela balore horiek. Gauza da oraingoan modu zuzenagoan egiten dela. Hala ere guk defendatzen dugun Euskal Curriculumaren oinarrian baloreak ere badira, beraz ikuspuntu honetatik ez da kritikagarria; bai ordea balore horiek zeintzuk diren ikusita... hau da, gure kritika ez da estatuak baloreak finkatzea, baizik eta zeintzuk balore finkatzen dituen (adibidez ez da zalantzan jartzen balore ekonomikoak politikoaren gainetik egon daitezkeenik, edo armada egotea garrantzitsua dela esaten da).

Arazoa, ordea, Espainiar konstituzioa eta baloreetan oinarritzen dela da, hau da, euskaldunon behar eta eskubideak errespetatu gabe. Erraza da ikustea LOEn oinarritutako ikasgai batek honek dituen arazo berdinak izango dituela: inposaketa, ukazioa eta eskubideen urraketa.

Gainera euskaraz ekoiztutako testu-libururik ez dagoenez Nafarroan gaztelaraz eginikoak erabiltzen dira kasu askotan, beste eduki batzuk jorratzeari uko eginez. Gure lanetako bat da, beraz, ikasgaiari kritika egiteaz gain ECAn finkatutako baloreen gaineko ezagutza ziurtatzea.

## ESPAINIARREN ARTEKO LISKARRAK

Educacion Para La Ciudadania ikasgaiak arazoak sortuko baditu ez da bereziki orain arte kokatu den moduan. Proposamena alderdi sozialistak euren proiektu sozialdemokrata indartzeko sortu dute eta horrek eskuinaren haserrea sortu du. Hori dela eta Gotzaiak, eskuin muturreko Foro de la Familia, PP eta euren ikasle sukurtsala (Union Democratica de Estudiantes), besteak beste, kritika kanpaina bati ekin diote. Baina kanpaina handi horrek estali egin ditu (edo estalarazi dute) ezkerretik egindako kritikak, badirela.

Eskuinetik egindako kanpainaren oinarria estatuak printzipio moralak ezartzeko dituen ezintasuna da. Euren ustez gurasoak dira eskolaren bitartez euren seme-alabentzako baloreak zeintzuk diren aukeratu behar dituztenak. Baina kritika hori ez da zilegi, orain arte eskolak dotrinatzea modu berberean egin duelako: gogoratu beharrik ez dago sektore horiek duten eragina erlijio edo moralitasuna eskoletan ezartzeko. Martxan jarritako kanpainan kritikatzan dena bi maila ditu, beraz. Alde batetik estatuak duen eskumena zalantzan jartzea eta bestetik edukiak beraiek kritikatzeta (euren esanetan, erlatibismo morala). Feminismoa edo homosexualen eskubideak eskolatik at egon behar dutela diote, baina ez dute kritikatzan erlijioa bertan egotea. Borrokamoldea Kontzientzia Eragozpena izan da. Euren asmoa ikasturte honetan 100.000 kontzientzia eragozpen lortzea da eta momentu honetan oso gutxi dituzte (irailaren erdialdean 84 ziren, nahiz eta 19.000 inguru direla esaten duten). Dirudenez Nafarroan 100 bat guraso prest daude euren seme alaben kontzientzia eragozpena aurkezteko, baina legalki ezin da horrela egin.

Ezkerretik kritikak ere etorri dira. Alde batetik eskuindarren ideiak kritikatu eta bestetik filosofiari kentzen zaizkion orduak kritikatu. Kritika oso interesgarri batek (ikus loturak) esaten duenez ikasgaiak sozialdemokraten baloreak finkatzen ditu, hau da, ekonomia ez da ukitzen, bakarrik jendartea. Euren esanetan ikasgai honek kapitalismoa zuzenean instalatzen du ikastetxeetan, egi absolutua bailitzan. Filosofo batzuek testu liburu ezkertiar bat ekoiztuko dutela diote, gaur egun argitaratua baino haruntzago doana.

## LOTURA INTERESGARRIAK

Ofizialak:

<http://www.mec.es/mecd/gabipren/documentos/files/ciudadania.pdf>

<http://www.educacionciudadania.mec.es/pdf/Recomendaciones.pdf> (Europar gomendioak)

<http://www.uc3m.es/uc3m/gral/TC/ESMA/ESMA45/presentacion.html> (Masterra)

[http://www.boe.es/g/es/bases\\_datos/doc.php?coleccion=iberlex&id=2007/00238](http://www.boe.es/g/es/bases_datos/doc.php?coleccion=iberlex&id=2007/00238) (Dekretua ofiziala)

EAEko Curriculumean jasotako edukiak: [lehen hezkuntza](#) – [bigarren hezkuntza](#)

Aldekoak:

<http://www.educacionenvalores.org/>

<http://www.educacionenvalores.org/sommaire.php3?lang=eu> (Euskaraz, eduki espezifikoekin)

[http://www.educacionenvalores.org/article.php3?id\\_article=1260](http://www.educacionenvalores.org/article.php3?id_article=1260) (Liburu digitalak)

<http://www.atrio.org/?p=791> (PSOEko kristau sozialisten manifestua)

Kontrakoak:

<http://www.objetamos.com/> (Kontzientzia eragozpen kanpaina)

<http://www.forofamilia.org/> (Foro espainiar ultrakatoliko eta eskuindarra)

<http://www.profesionalesetica.com/index.php?SEC=descargas&aid=INVESTIGA.EDUCACION> (eskuinekoa)

[http://www.larazon.es/noticias/noti\\_soc7898.htm](http://www.larazon.es/noticias/noti_soc7898.htm) (La Razoneko artikulua)

<http://www.libertaddigital.com/bitacora/educacion/> (PPko ikasle arduradunaren bloga)

<http://www.elplural.com/media/0000007000/0000007474.doc> (Kritika ezkerretik)

[http://www.kaosenlared.net/noticia.php?id\\_noticia=38055](http://www.kaosenlared.net/noticia.php?id_noticia=38055) (Educacion anticapitalista)

[http://www.kaosenlared.net/noticia.php?id\\_noticia=40360](http://www.kaosenlared.net/noticia.php?id_noticia=40360) (Ezkerretik egindako kritiken bilduma)

Irakurgai interesgarriak:

<http://www.danielestulin.com> (Bilderberg Klubaren inguruan)